



## LAB sindikatuaren adierazpena

Pasa den maiatzaren 24ean udalean gobernu aldaketa bat egitea erabaki zuen Pasaiaiko jendarteak. PSEk irabazi zituen hauteskundeak, eta zerrendaburu den Izaskun Gomez izango da ziurrenik Pasaiaiko hurrengo alkatea. Izaskun Gomezek kanpainian zehar hitz eman zuen hondakinen bilketa sistema aldatu egingo zuela, atez atekoa kendu eta borondatezko edukiontzia ezarriko zituela, alegia.

Egun San Markoko Mankomunitateko funtzioko lehendakaria den Denis Itxasok (PSE) bere momentuan edukiontzi hauek Mankomunitateak doan ezarriko zituela adierazi zuen (**egun 118250€-tako kostua suposatuko luke**). Halaber, hauek uztailean zehar Izaskunek esandako guneetan berrezarriko zituela esan zuen, hau oraindik oposizioko funtzioko kontseilaria zenean. Aldaketa hau gauzatu ahal izateko, FCC enpresak zuen kontratuaren anpliazio bat behar zuen: FCC berziklagarriak diren hondakinez arduratuko litzateke, eta udalaren gain geldituko litzateke errefusaren bilketa. Kontratuaren aldaketa hau ekainaren 9an San Markoko Mankomunitatean ospaturiko batzarrean egin nahi izan zen, baina honen aurrean EHBilduk azaldutako kontrako jarrera ikusirik, gai zerrendatik kentzera behartuta ikusi zen, aginte organoak funtziotan baitzeuden oraindik. Bestalde, gogorarazi 2006. urtean Izaskun Gomez buru zen gobernu taldeak garai hartan kale garbiketa zerbitzua pribatizatu zuela, kasualitatez FCCren esku utzirik. Azpimarratu beharra dago aurreko legislatura honetan, zerbitzua publikatu egin dela.

Bestalde, aipatu Pasaiaiko udalak hondakinen bilketarako eskuduntza duela, udalbatzan gehiago batez onartu zelako. Eta honi gehituta, udalbatzaren bitartez ere, udaletxeak berziklatze tasa gutxienez %70era eramango zuen bilketa sistema bat ezarriko zuela erabaki zuen.

Izaskun Gomezek “etorkizuneko” alkate gisa, berehalako sistema aldaketarako gestioak egin ditu honez gero.

**Egoera honen aurrean, Pasaiaiko Udaleko LABek honako adierazpen hauek egin nahi ditu:**

1. Hondakinen bilketan **“interino” bezala dabilzan langileen lanpostuen etorkizunagatiko ardura agertzen dugu**, erabat mediatikoa den egoera honetan, ez baita inongo arduradunik beraiekin harremanetan jarri, ezta ordezkari sindikalekin ere.
2. “Interino” moduan dabilzan langile hauen funtzioak ez dira bilketa lan horietara mugatzen, baizik eta baja ezberdinen ordezkartzan eta zerbitzuetako sailean egiten diren lan ezberdinetan errefortzu moduan ere aritu izan dira (kale garbiketa, azpiegituren muntai eta desmuntai lanetan, lorategi lanetan, etab.). Errefortzu lan hauek oso emaitza positiboak sortu dituzte.

3. Berziklagarriak diren hondakinen bilketa FCC enpresaren esku geldituta, antza San Markoko Mankomunitateak euren zerbitzua azpikontratatu du, eta honek bilketa honen pribatizazioa dakar.
4. **Langile publiko diren zerbitzuetako sailetik egindako proposamen teknikoak, udalaren menpe dauden langile publikoek egindako bilketaren errentagarritasun ekonomikoa zein kalitatea defendatzen du.**
5. Egungo aurrekontuetatik kanpo dagoen bilketa sistema aldatze honek, kontuan hartzeko moduko gastu gehigarri bat ekarriko duela. Ezusteko gastu honek, langileen baldintzen murrizketetan zein eskaintako zerbitzu publikoen kalitatean eragin zuzena izan lezake.

Eta guzti honengatik, honakoa adierazten dugu:

1. **Lanpostu hauen jarraipena defendatuko dugula, langabezia gelditu ez daitezen irtenbideak eskainiz.**
2. **Sektore publikoko edozein pribatizazioaren aurka gaudela, eta horregatik, hondakinen bilketa, egiten den sistemarekin egiten dela, udaletxearen menpeko zerbitzua izan dadila eskatzen dugu. Eta udala bera izan dadila zerbitzu honen kalitatea zein errentagarritasun ekonomikoa kudeatuko duena.**
3. **Lanpostu hauen defentsan eta udaleko edozein zerbitzuren pribatizazioaren aurka sorturiko proposamen eta mobilizazio sindikalak babestu eta bultzatuko ditugula.**

Honenbestez, datorren **ekainaren 13an, goizeko 9,30etan** P. Donibaneko Bizkaia Plazan (udaletxe ondoan) ospatuko den **konzentrazioa** babestu eta bertan parte hartzeko deialdia luzatzen diogu jendarteari. Inbestidura baino orduerdi lehenago.

**Oharra: Deialdia hondakinen bilketan dabiltzan langilego osoak babestu du, bere osotasunean.**

